

CARITASEN KANPAINA

«ERDU – TE INVITO»

Caritasen eguna: «Lan inklusiboaren alde»

2022ko APIRILAREN 3a

GARIZUMA-ALDIKO 5. DOMEKEA (C)

Liturgia lagungarriak

Atarikoak:

- ✿ Lagungarri honeek liturgiako talde eragilearen esku iztea komeni da.
- ✿ Lagungarriak aurrerapenez prestatu doguz. Ez ahaztu, kanpaina egiten danean Jainkoaren herriaren otoitzean sartzea egoki dan gertaerak izan daitezakela.
- ✿ Ezinbestekoa da liturgia lagungarriekin batera bialtzen doguzan materialak irakurtea kanpainaren senaz jabetzeko.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Garizuma aldiko bosgarren domekan gagoz eta bihotz-barritzeko bidearen azken txanari ekin deutsagu. Gaur be barri ona jasoko dogu: Jaunak ez dau gizatasuna kentzen deuskun pekatua zuritzen; baina bere parkamena emoten deusku, Jaungoikoaren seme eta alaba lez dagoki-gun bizia barriro sortu daiten gudan.

Caritasek bere eguna ospatzen dau gaur, helburu honen haritik: «Lan inklusiboaren alde egin». Hauxe dino Frantzisko aita santuak: «lanaren balio nagusia... pertsonaren ona da... Berea ez da ekonomia -edo irabazi- helburu hutsa, gizon eta emakumeen duintasuna xedetzat dauan helburua baino... Lanik ezean, duintasun hau urratu egiten da». Lan egin gura daben guztiei, batez be ahultasunezko egoeran bizi diranei, lan duina izateko, gizar-tearen aurrean dagokien duintasuna emondo deustsen lana izateko aukera emon behar jake. Abestuz ekingo deutsagu ospakizunari.

SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Bihotz-barritzeko dei egiten deuskun Jauna, zuekin.

CAMPAÑA DE CÁRITAS

«ERDU – TE INVITO»

Jornada de Cáritas: «Apuesta por el empleo inclusivo»

3 de ABRIL de 2022

5º DOMINGO DE CUARESMA (C)

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✿ Conviene pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- ✿ Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- ✿ La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es necesaria para comprender el sentido de la Campaña.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Hemos llegado al quinto domingo de Cuaresma, y entramos en la recta final de este tiempo de conversión. Hoy también recibiremos una buena noticia: El Señor no justifica el pecado que nos deshumaniza, pero nos da su perdón, para que en nosotros pueda volver a renacer la vida propia de los hijos e hijas de Dios.

Hoy es Jornada de Cáritas con el lema «Apuesta por el empleo inclusivo». El papa Francisco afirma que «el valor principal del trabajo es el bien de la persona... No tiene solamente una finalidad económica y de ganancia, sino una finalidad que implica la dignidad de las personas ... Si falta el trabajo se lastima esta dignidad». Se trata del acceso a un empleo digno de todas las personas que quieran realizar una actividad laboral, preferentemente quienes viven en una situación de mayor vulnerabilidad, y que les dignifica ante el resto de la sociedad.

Iniciemos la celebración unidos en el canto.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, que nos llama a la conversión, esté con vosotros.





DAMU OTOITZA

Bihotz-barritzearen eta parkamenaren bidez heriotzatik Jainkoaren bizira igaroteko dei egiten deusku Jesus Jaunak. Apaltasunez, eskatu daigun parkamena gure pekatuengaitik. (Isilunea)

– Oinazetan dagoenaz errukitzen zarena: Erruki, Jauna.

– Guri bizia emonez aintzaz betetzen zaran Jaungoikoaren Semea zarana: Kristo, erruki.

– Heriotzatik askatzen gaituzun Berbizkunde eta Bizia zarana: Erruki, Jauna.

OHARRA 1. IRAKURGAIARI (ISAÍAS 43,16-21)

Israel herria Babilonian erbesteraturik dagoala entzungo dogu lehenengo irakurgaiari. Profetak urteen buruan ahuldutako itxaropena biztu gura eban, eta askapena hurbil dala iragarten deutse atzerriratupei.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI (PAULO ETA FILIPOKO ELIZ ELKARTEA 3,8-14)

Bigarren irakurgaiari, Paulo apostoluak bere aurreko bizitza aztertzen dau eta, Kristo ezagutu izanagaz alderatuz, zabortzat jotzen dau. Aurrerantz begiratzen dau bakarrik eta helmugan jartzen ditu begiak.

EBANJELIO JOAN (8,1-11)

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Aurkeztu deioguzan Jaungoiko Aitari gure munduaren beharrak eta eten barik isuri daizala gure gainera bere parkamena eta bizia emoten deuskun Espiritua.

– Eleiza, Espirituaren indarraz, itxaropenaren adierazle izan daiten munduan, harrera eginez, adore emonez eta kontsolatuz. **Eskatu deiogun Jainari.**

ACTO PENITENCIAL

El Señor Jesús, a través de la conversión y el perdón, nos llama a pasar de la muerte a la vida de Dios. Con sencillez y humildad, pidamos perdón por nuestros pecados. (Instantes de silencio)

– Tú, nuestro Hermano que te compadeces del sufriente: Señor, ten piedad.

– Tú, Hijo de Dios que eres glorificado dándonos vida: Cristo, ten piedad.

– Tú, Resurrección y Vida que nos rescatas de la muerte: Señor, ten piedad.

MONICIÓN a la 1ª LECTURA (ISAÍAS 43,16-21)

En la primera lectura vamos a escuchar que el pueblo de Israel está desterrado en Babilonia. El profeta quiere suscitar la esperanza, debilitada por el paso de los años, y anuncia a los exiliados la próxima liberación.

MONICIÓN a la 2ª LECTURA (CARTA DEL APÓSTOL SAN PABLO A LOS FILIPENSES 3,8-14)

En la segunda lectura, el apóstol Pablo examina su vida anterior y la considera basura en comparación del conocimiento de Cristo. Mira solamente hacia delante y fija sus ojos en la meta.

EVANGELIO SAN JUAN (8,1-11)

ORACIÓN UNIVERSAL

Presentemos a nuestro Padre Dios las necesidades de nuestro mundo y pidamos que siga derramando sobre nosotros su perdón y su Espíritu de vida.

– Para que la Iglesia, con la fuerza del Espíritu, sea en el mundo signo de esperanza, acogiendo, animando y consolando. **Roguemus al Señor.**



– Jesus berbiztuaren graziaz bete daitezala datorren Pazkoan Kristinau Sarbideko sakramentuak hartzeko prestatzen ari diran kristaugarai guztiak. **Eskatu deiogun Jaunari.**

– Caritasek jarraitu daiala lan inklusiboaren alde egiten eta guri adore emoten, guztion ahaleginez, lan duina hedatu daiten, langile guztien eskubideak errespetatuz, bazterkeriak saihestuz, langile guztiek euren familien beharriaz aurre egin deien, seme-alabak eskolatu daiezan lan egitera behartu barik; langileak antolatu daitezkan eta euren ahotsa entzunarazo daien; euren sustraietara joteko aukera izan daien arlo guztietan eta erretiro duina izan daien. **Eskatu deiogun Jaunari.**

– Gure erabagiak jakinaren gainean eta Jainkoaren borondateagaz bat eginez hartu daiguzan. **Eskatu deiogun Jaunari.**

Aita, bizi-emoilea, begiratu errukiz gaur heriotzazko ilunpeetan bizi garanoi eta, zure Espirituaren bitartez, barritu eta aldatu gure bizitzak. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Gaur batu daiten dirua Eleizbarrutiko Caritasentzat izango da. Horren bitartez, laneratze-prozesuan laguntza eskainiko dau, pertsonak gizar-tean txertatzea eta euren duintasuna bermatuz, beti be itxaropenaren ikuspuntutik. Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

JAUNARTZE OSTEKO ISILTASUNEAN

Jauna, nire bihotza bizilekutzat eskaini gura deusut
izan naiteken pertsonarik onena egin naizun.
Munduaren argi garala esan zenduan behin.
Gustuko dot argi izatea,
nire inguruko guztiei alkartasunaren argiaz argi egitea,
triste dagozanak pozik bizi daitezkan,

– Para que los catecúmenos que en el mundo entero se preparan para recibir los sacramentos de la iniciación cristiana en la próxima Pascua, la gracia de Jesús resucitado los llene durante toda su vida. **Roguemos al Señor.**

– Para que Cáritas siga empeñándose y nos anime a todos en la tarea de conseguir que los trabajadores sean respetados, evitando toda discriminación; un trabajo que permita satisfacer las necesidades de las familias y escolarizar a los hijos sin que se vean obligados a trabajar; un trabajo que permita a los trabajadores organizarse libremente y hacer oír su voz; un trabajo que deje espacio para reencontrarse adecuadamente con las propias raíces en el ámbito personal, familiar y espiritual; un trabajo que asegure una condición digna a los trabajadores que llegan a la jubilación. **Roguemos al Señor.**

– Para que sepamos tomar nuestras decisiones conscientes y coherentes con la voluntad de Dios. **Roguemos al Señor.**

Padre y autor de la vida, mira compasivo a quienes hoy vivimos en sombras de muerte y, por la acción de tu Espíritu, renueva y transforma nuestras vidas.

Por Jesucristo nuestro Señor.

MOTIVACIÓN A LA COLECTA

La colecta que ahora realizamos se destina a Cáritas diocesana. Por su medio seguirá realizando el acompañamiento en el empleo, garantizando la inclusión y la dignidad. Todo desde una clave de esperanza. Gracias por vuestra solidaridad.

EN EL SILENCIO DE LA COMUNIÓN

Señor, quiero dejarte vivir en mi corazón,
para que puedas hacer de mí
la mejor de las personas que yo pueda ser.
Una vez dijiste que somos la luz del mundo.
Me gusta eso de ser luz,
de iluminar a todas las personas que me rodean
con la luz de mi solidaridad,
para hacer que las que están tristes vivan en la alegría,

gaitzespenaren iluntasunean bizi diranek
 lagunartearen argi eta berotasunaz gozatu daien,
 dana ilun ikusten dabenek
 dana itxaropenaren kolorez ikusi daien.
 Lagundu eidazu zure adiskide argiaren berotasuna
 nire barruan sentitzen,
 holan zure adiskide argi eta berotasuna
 izango naz-eta besteentzat nire jokabidegaz.
 Holan itxaropen argi izango naz
 egunero inguruan dodazan pertsonentzat.

**ABADEAREN AGURRA
 (BEDEINKAPENAREN OSTEAN)**

Izan daigun, aste honetan, behar gaituanari eskua
 luzatzen deutzan bihotz errukitsua.

Zoaze Jaunaren bakean!



para hacer que las que viven la oscuridad del re-
 chazo,
 disfruten la luz y calor de la compañía,
 para hacer que las que lo ven todo negro
 lo vean todo de color esperanza.
 Quiero que me ayudes a sentir el calor
 de tu luz de amistad dentro de mí,
 porque así podré ser para las demás
 tu luz y calor de amistad con mi forma de obrar y
 actuar.
 Así podré ser luz de esperanza
 para las personas que me rodean cada día.

**DESPEDIDA DEL PRESIDENTE
 (DESPUES DE LA BENDICIÓN)**

Manifestemos, durante esta semana, un corazón
 misericordioso que tiende su mano a quien nos
 necesita.

¡Podéis ir en paz!

